

DENBORAREN MUSEOA

3. bertsioa

Publikoa kokatzen den bitartean, hiriaren balizko mapa mutu dago. Han hemenka sakabanaturiko argi une batzu dardarka besterik ez da ikusten. Erlojugilea bizarra egiten duen bitartean, ikusleei:

ERLOJUGILEA

(Umore onez) Ea, ea, bizkortu, zeren zain zaudete? Minutu eta 17 segundu daramazue. Ezin dugu gehiegi luzatu, azkarrak eta zuhurrak izan behar dugu, Lurpekoak zelatan daude ta! *(Bapatean keskatuaz)* Ez al ziren zuen atzetik etorriko! Badakizue nortzu diren, uniforme grisa eta militar kapela duten horiek...

Pantailan Lurpezain baten erretratu robota agertzen da, azpian: "LURPEKOAK" dioen karteltxoarekin.

ERLOJUGILEA

Baina ez gara hona Lurpekoez hitz egitera, Denboraren Museoaz baizik. Hemen duzue. Alehop!

ERLOJUGILEA palanka bati eragin eta mapa martxan jartzen da.

ERLOJUGILEA

Berez hau ez da museoa. Museoaren ordenagailua besterik ez da. Museoa Bilbao osoan dago. Hobeto esanda, Bilbao azpian. Ikusten txartel hauek? Objetu baten istorio bana kontatzen dute. Hemen istorioa daukaten objektuak gordetzen ditugulako. Esaterako *(txartel bat hartzen du)* Deustun mutil batek bizikletaren txirrin bat lurperatu du, ibiltzen ikasi zuen bizikletarena, hain zuzen. Txurdinagan, neska batek 7 urte betetzean oparitu zioten Asterix eta Obelix-en liburua. Gauza arruntak dirudite. Urrutira jo gabe nik neuk bihar kaxa zahar hau lurperatuko dut.

ERLOJUGILEAK kaxa zahar bat erakusten du.

ERLOJUGILEA

Kaxa hau erosi nuen egunean, dendatik irten, kalea begiratu gabe zeharkatu eta zas! auto batek aurretik eramanez ninduen. Irekitzen dudanez bakoitzean zera gogoratzen dut: oinean jarri zidaten eskaiola, suerte handia izan nuela bizirik irteteagatik eta baita... (*kaxatik egurrezko makila bat ateratzen du*) erabili behar izan nuen egurrezko makila ere. Kaxa honek bizi izan dudanez denbora gordetzen du!!

Lurpetik datorren abots bat entzuten da.

ESTOLDARIA (OFF)

¡¡Cagoen en las Cloacas de Basurto!! Horrela ohiukatzen baduk Bilboko Lurpeko guztiak etorriko dituk!!

ERLOJUGILEA

Arrazoi duk, arrazoi duk. Berotu egiten nauk eta...

Lurrean dagoen estolda batetik argi izpi bat irteten da. Gero, estoldaren estalkia altxatu eta Estoldaria agertzen da.

ESTOLDARIA

Beroa, lurpean egiten duena.

ERLOJUGILEA

Nola zihok dena hor behean?

ESTOLDARIA

Berririk ez. Objeto guztiak egoera ezin hobean, pelutxe hau salbu. Txakur batek lurpetik atera eta hozka ari zitzaioan.

Pelutxe bat erakusten du, lurrez zikindurik eta hozkadaka urratuta.

ESTOLDARIA

Kostatu zaidak kentzea. Azkenean hezur bat atera eta...

Estoldariak hezur bat ateratzen du.

ESTOLDARIA

...bota egin zioat. (*Toki batean jartzen du*) Konpondu beharko diat (*Ikusleei begira*) Baina, zer egiten dik gazte jende honek hemen?

ERLOJUGILEA

(*Publikoari*) Hau ene lagun eta lankidea da. Eta kilkeraren memoria dauka.

ESTOLDARIA

Ea gogoratzen naizen.... Hemendik egon behar dik, ba...
(*Poltsikotik mukizapi bat atereaz*)

ERLOJUGILEA

...baina moldatzen da gauzak gogoratzeko.

ESTOLDARIA

(*Arin*) Mukizapia. Mukizapia-mukiak. Mukiak-Doministikua- Doministikua-gripea. Gripea-Hospitala... Hospitala? Ez, kagoen Gallartako Mehategia, hau ez da hospitala... Egon... (*Zapia lore bihurtzen du*) Ah... Hau beste gauza bat da. Ea ba: Lorea. Lorea-Arbola. Arbola-Egurra. Egurra-Txalaparta. Txalaparta-Musika. Musika-DoReMiFaSol. Doremifasol: Do, dozenaka. Re, renakuajo. Mi, misterioa. Fa, fantastikoa. Sol: solasaldia. Badaukat: gaur da eguna DOzenaka RENakuajoekin museoaren MIsterio FAntastikoaz SOLasaldia egiteko!

ERLOJUGILEA

Hala da. Hasteko, zergatik ez zieagu erakusten lurperatu genuen lehen objektua? Gogoratzen duk non dagoen?

ESTOLDARIA

Adiskidea, hori duk inoiz ahaztuko ez dudan gauza bakarra. Banoak bila.

ERLOJUGILEA

Erne Lurpekoekin!

ESTOLDARIA

Egon, egon... Nora noak ni?

Estoldariak zapi bateik untxi bat ateratzen du.

ESTOLDARIA

Untxia? Untxia-ehiztaria. Ehiztaria-eskupeta. Eskupeta-Tiro. Tiro-Hilketa. Hilketa-Lurperatzea... Bazekiat! Lurperatu gintian lehenengo objektuaren bila joan behar diat.

Estoldaria estolda barruan sartzen da farol batez.

Erlojugileak kontatzeari ekingo dio, pantailan agertuko diren irudien laguntzarekin.

ERLOJUGILEA

Ea nondik hasi... Ni erlojugilea naiz... nintzen. Denbora kontrolpean jartzeko makinariak asmatzen nituen etengabe.

Pantailan eskema mekaniko artikulatuak ikusten ditugu.

ERLOJUGILEA

Erloju Segundu-jalea!! Gurpil lastratuak dituen makinaria bat, segundu bakoitzari milarenak lapurtzeko. Aspertu-Kronoa!!, dibertitzen zarenean denbora luzatu eta asperten zarenean laburtu egiten duen erlojua; Tak-Tik makina!! Alderantziz egindako erlojua, denboran atzera egiteko!! Alper-Zirikatzailea!! Despertadorearen alarma etengabe jotzen ari den erlojua, sekulan lotan ez geratzeko. (...) Txatarra hutsa denak. Ezin nuen denbora gobernatu. Egun batean, bizarra egiten ari nintzela...

Hasieratik utzita zeukan bizar mozteari ekiten dio berriz ere. Pantailan bere irudia ikusten dugu islaturik, ispilu bat bailitz. Bera da, aurpegia aparrez estalita dauka han ere, baina jazkera desberdina dauka eta mugimenduak ez dira simetrikoak. Pantailak erakusten duen Erlojugilea, narrazioaren denborakoa da.

ERLOJUGILEA

... ispiluan nik ezagutzen ez nuen morroi arrotz bat ikusi nuen islaturik: adineko gizon bat zen, isilean niri begiraten zidana, nirekin batera bizarra egiten zuen bitartean. Nor zen ba, gizaseme hori? Nire antz itzela zeukan! Orduan erori nintzen kontuan. Zahartu egin naiz!!

ERLOJUGILEAREN ISLADA

Jakina. Zer espero huen ba?

ERLOJUGILEA

Duela gutxi gaztea nintzen ordea. Nola pasatu ote da denbora hain azkar?

ERLOJUGILEAREN ISLADA

Bai, hire iragana hutsik dagoelako. Ez daukak oroimenik.

ERLOJUGILEA

Oroimenik? Ez dizut ulertzen. Zer zerikusia dute oroimenek denboraren joanarekin?

ERLOJUGILEAREN ISLADA

Hik uste baino gehiago. Entzun arretaz, eta gogoratu: “I de be berdin g gehi g ber bi ken a gehi a zati a bider 365”.

Erlojugilearen islada pantailatik desagertzen da.

ERLOJUGILEA

“I de be berdin g gehi g ber bi ken a gehi a zati a bider 365”? Zer da hori? Zer esan nahi du? Ez zaitez joan!!

Pantailan formula ikusten da:

$$\text{I.D.B.} = \frac{(g + g)^2 - (a + a)}{U \times 365}$$

ERLOJUGILEA

Ez nuen ulertzen. Ez zegoen modurik. Zuen adina nueneko garaia gogoratu nuen, etxeko lanak egiten, andereñoak agindutako problema ulertu ezinik... Egon... Gogoratu!! Jakina, gogoratzea zen koxka. “Iragan denbora bizia berdin gogoratzen dugunaren batuketa ken ahaztu dugunaren batuketa zati gure adina bider 365.”

Un efecto sonoro final da rotundidad al momento.

ERLOJUGILEA

Edo beste era batez esanda: Gogoratzen dugun iragana bizirik dago!! Orduan, nire iragana gogoratzen hasi nintzen...

Pantailari begira geratzen da, non irudi deskodifikatu bat ikusten dugun, antenarik gabeko telebista bat bezela.

ERLOJUGILEA

Baina ez zitzaidan oroimenik burura etorri. Eskolatik atera nintzenetik lan eta lan besterik ez dut egin eta... Egon!! Eskola!!

Pantailan eskola baten irudia agertzen da sepia koloretan.

ERLOJUGILEA

Eskolako oroimenak banituen, behintzat... Gela gogoratzen nuen, tiza usaina, errekreoko ohiauak, patioko jolasak, ikaskideak, lagunak... lagun bat, nire laguna...

Pantailan mutiko bat agertzen da, eskolako batarekin eta berau ere sepia koloretan.

ERLOJUGILEA

Nola zuen izena? (...) Juanjo. Hori da, Juanjo. “Juanjo ikusi beharra daukat!”

Aparra toalla batez garbitzen du.

ERLOJUGILEA

Bere etxea non zegoen gogoratzen nuen. Han biziko ote zen oraindik? Iritsi eta atezainari galdetu nion. Bai, etxe berean bizi zen, baina lanean zegoen orain. “Estoldetan lan egiten du”, esan zidan. Lanera joan nintzen eta han ikusi nuen, estolda batetik irteten.

Estoldaria estoldaren estalkia zabaldu eta irteten da, lurpetik ateratako objektuarekin.

ERLOJUGILEA

Ni bezain zahartuta zegoen. Begiratu nion, begiratu zidan. Irribarre egin nion, irribarre egin zidan. Besarkatu egin nuen...

Erlojugileak Estoldaria besarkatzen du. Honek ez du zirkinik egiten.

ERLOJUGILEA

...berak ez ninduen besarkatu. Zera esan zidan ...

ESTOLDARIA

Barkatu jauna, jakin liteke, molestia handirik ez bada, zergatik besarkatu nauzun?

ERLOJUGILEA

Ez al haiz nitaz gogoratzen? Elkarrekin jolasten gintian eskolan.

ESTOLDARIA

Barkatu, baina ez...

ERLOJUGILEA

Eskonditean, kaniketak... Kromoen bildumak egiten genitian.

ESTOLDARIA

Kromoak? Begoñako Tunelaren izenan, ze demontre esaten ari zara? Nor zara zu? Eta ni? Nor naiz ni?

Bere gorputzaren atal ezberdinetatik (sudurra, belarriak etab...) naipeen moduko txartelak ateratzen ditu bakoitzak letra bat idatzita daramana.

ERLOJUGILEA

Orduan ohartu nintzen nire lagunak objektuak behar zituela gauzak gogoratzeko.

Bitartean, Estoldaria bere ekintzarekin dago.

ESTOLDARIA

J, U, A, N, J eta O. Juanjo. Ah, bai, Juanjo dut izena.

ERLOJUGILEA

Orduan zera bururatu zitzaidan: etxera igo, eta urtetan pilatutako tramankuluaren artean bila hasi nintzen. Azkenean aurkitu nuen nik nahi nuena.

Estoldariak Erlojugileari lurpetik ateratakoa botatzen dio.

ERLOJUGILEA

Nire lagunarengana itzuli nintzen osterara.

Estoldariarengana bueltatzen da.

ESTOLDARIA

Ah, zeu zara berriro... Arazorik al duzu nirekin? Dirua zor dizut? (*Eroaren keinua eginez*) Gaizki al zabiltza tuneletik, ala?

ERLOJUGILEA

Tori. Hau hiretzat duk.

Albuma ematen dio.

ESTOLDARIA

Niretzat? Zergatik? Zer da hau?

ERLOJUGILEA

Kontatu diadana egia den lekukoa duk.

Estoldariak albuma irekitzen du.

ESTOLDARIA

Futbolariaren estanpatxoak dira....

ERLOJUGILEA

Kromoak.

ESTOLDARIA

Kromoak? Kromoak-nocilla bokata. Nocilla bokata-eskola. Eskola-errekrea. Errekrea-laguna. Laguna-Tomas...
¡¡Tomas!! Nondik ibiliko da Tomas nire laguna?

ERLOJUGILEA

Hire aurre aurrean.

ESTOLDARIA

Hi... Tomas haiz?

ERLOJUGILEA

Eta hi Juanjo.

Besarkatu egiten dute.

ERLOJUGILEA

Eta orduan nire lagun Juanjok ideia bikaina izan zuen.

ESTOLDARIA

Badakik zer egingo dudan, Tomas? Alsuma eskolako patioan lurperatuko diat.

ERLOJUGILEA

Zergatik?

ESTOLDARIA

Horrela ez dudalako sekula ahaztuko.

ERLOJUGILEA

Juanjok alsuma eskolako patioan lurperatu zuen. Eta holan hasi zen Denboraren Museoa. Nik lagun bati kontatu nion, eta berak bere exkalextric-aren lehenengo kotxea lurperatu zuen.

ESTOLDARIA

Nik atezainari kontatu eta bere eskoba zaharra lurperatu zuen.

ERLOJUGILEA

Ordutik hona, ehundaka, milaka lagunek lurperatu dute hiri honetan objeturen bat, bakoitza bere istorioarekin. Aukeratu dezagun bat, adibide gisa. Hauxe bera.

ERLOJUGILEAk mapako txartel bat hartu eta irakurtzen du. Hitz egin bitartean, narrazioa ilustratzen dituen irudi sorta ikusten dugu.

ERLOJUGILEA

Iratxe 10 urterekin	Hau Iratxe da. 8 urterekin ez zekien igeri egiten. Egun batean Sopelako hondartzara joan zen bere gurasoekin. Sopelako hondartza ederra da, baina oso arriskutsua ere
Iratxe con 8 urterekin bainu jantzitan.	Aitak mangitoak ipintzeko esan zion, baina Iratxek ez zuen nahi, mangitoekin neskato txikia emango zuelako.
Sopelako hondartza.	Aitak esan zion mangitorik gabe ezin zuela bainurik hartu, baina Iratxek kasurik egin ez eta uretara sartu zen. Halakoan olatu erraldoi batek harrapatu zuen, eta korrenteak itxaso barrura eramaten hasi zen. Ondoratzen ari zen Iratxe. Orduan, bere aita ailegatu zen, mangitoekin.
Itxaso zakarra. Olatuak.	Iratxe mangitoei esker lehorrera bueltatu zen. Eta gainera zera ikusi zuen: inork ez ziola burlarik egin 8 urterekin mangitoak erabiltzeagatik.
Mangitoak.	Orain Iratxek 10 urte ditu eta badaki igeri egiten. Ez du jada mangitoen beharrik. Gainera, ezkerrekoa zulatuta dago. Baina Iratxek ez zituen zaborrera bota nahi. Horrexegatik lurperatu zituen Plaza Berrian.
Iratxe mangitoekin.	Gero gutun bat idatzi zigun, bere istorioa kontatzeko. Eta gutuna guganaino heldu zen.
Iratxe mangitoak lurperatzen.	
Iratxe gutuna idazten.	
Iratxe buzoian sartzen.	

ERLOJUGILEA

Ikustagun beste istorio bat.

Beste txartel bat hartu eta irakurtzen du.

ERLOJUGILEA

Jon 11 urterekin.	Mutil honek Jon du izena eta Errekalden bizi da. 11 urte ditu.
Argazkia osorik.	Jonek argazki bat lurperatu zuen. Argazki horretan Jonek 4 edo 5 urte zituen eta Maider eta Sararekin dago.
Anaia Lehen Jaunartzearen jantziarekin.	Argazkia bere anaiaren Lehen Jaunartzearena da.
Jonen zapaten detailea.	Jon ez zegoen eroso: zapatek min ematen zioten eta arropak beroa.
Buztan, adar eta makilen detaileak.	Maiderrekin haserretu zen beranduago. Horregatik pintatu zizkion argazkian buztana eta deabru makila. Gero aurpegia zirriborratu eta adarrak jarri zizkion.
Gutuna	Sararekin ez. Behin Sarak gutun bat eman zion. Jonek ez digu kontatu zer zioen. Bakarrik esan digu bihotz bat dagoela pintaturik eta hitz bat boligrafo urdinez idatzita: “maite”. “A” letrak bihotz itxura du, eta “M”-ak etxea ematen du.
Maite eta bihotzaren detailea.	Jonek Artxandan lurperatu zuen argazkia, Sarak gutuna eman zion egunean Funikularrean igo eta arratsalde osoa han pasatu zutelako.
Artxandako funikulara.	
Jon argazkia lurperatzen.	

Mapan puntu berri bat argitzen da, soinu batekin.

ERLOJUGILEA

Hara! Une honetanxe norbait objektu bat lurperatzera doa Arenalean. Ea nor den...

Planotik txarteltxo hartzen du.

ERLOJUGILEA

Hara! Hau kasualitatea! Zuetako askok neska hau ezagutzen duzue. (*Estoldariari*) Juanjo, hoa salto batean Arenalera eta galdeioek zer lurperatuko duen.

ESTOLDARIA

Joango nindukek, baina arazo bat zagok.

ERLOJULARIA

Ze arazo?

ESTOLDARIA

Ez diat gogoratzen. Eskerrak agenda mingain puntan dudan.

Ahotik koloretako zinta luze bat ateratzen du, ostadarraren koloreekin: bioletatik gorrira.

ESTOLDARIA

Bioleta: Izeba Violeta bisitatzera joan behar diat. Añila, mantela tintoreriara eraman; Urdina: igandean itxasora arrantzan; Oria: gurina bukatu zaidak; Laranja: euskalteko faktura ordaindu; gorria: alarma gorria. Lurpekoak nire atzetik zaudek. Ah, hau duk arazoa.

ERLOJUGILEA

Arenala berton zagok. Ez zaik ezer gertatuko.

ESTOLDARIA

Hik esaten baduk...

Estoldariak buruan kaskoa ipintzen du, kamara batekin, estalkia ireki eta badoa. Handik gutxira burua agertzen du berriz.

ESTOLDARIA

Gauza bat, Tomas... Zera... Nora noak ni?

ERLOJUGILEA

Arenalera, neska bati elkarrizketa egitera.

ESTOLDARIA

Ah, bai!

Badoa. Aurrerantzean, pantailan, bere kamarak lurpean grabatzen duena ikusten dugu. Tunel estu eta hezea da.

ERLOJUGILEA

Begira. Hau beste Bilbao bat da, inortxok ezagutzen ez duena. Hiria tunelez josita dago. Juanjok bere etxeko pasilua bezala ezagutzen ditu denak. Bilboko mutur batetik bestera lurpetik ibiltzen daki, Errekaldeberritik Txurdinagara, Begoñatik San Inaziora.

ESTOLDARIA

Tomás... Arenaleko kioskoaren azpian nagok. Kanpora noak.

ERLOJUGILEA

Ondo duk.

Estoldariak tapa altzatau eta kanpora irteten da. Arenalean dago. Jone zuloa egiten ari da.

ESTOLDARIA

Kaixo!

JONE

Kaixo.

ESTOLDARIA

Juanjo dut izena eta Museorako ari naiz lanean. Zu Janis zara, ezta?

JONE

Nire benetako izena Jone da.

ESTOLDARIA

Jone. Une honetan gazte mordoa ari zaizu begira. Kontaiezu zer lurperatu nahi duzun eta zergatik.

JONE

Kaixo, zer moduz? Zera... Nik apurtutako flauta hau lurperatu nahi dut.

Jonek bi zatitan erdibituriko flauta bat erakusten die.

JONE

Nire aititerena zen. Txikitan, nire gurasoak berandurarte lan egiten zuten, aititek oheratzen ninduen. Ez zuen ipuinik kontatzen. Zera esaten zuen: "ipuinak agureen kontua dira". Grazia egiten zidan, bera ere nahiko zaharra zelako. Orduan bere flauta hartu eta jotzen hasten zen ni lotan geratu arte. Aitite hil zenean, bere flauta eman zidaten. Nik jotzen ikasi nahi nuen, baina lehengo gau batean gauza harrigarri bat gertatu zen.

ESTOLDARIA

Kontaiguzu.

JONE

Ameskaizto bat izan nuen. Esnatu nintzenean, flauta apurtuta aurkitu nuen.

ESTOLDARIA

Eta hori?

JONE

Ez dakit. Misterio bat da. Zerbait harrigarria gertatu zen gau hartan.

ESTOLDARIA

Jone... Ez zaitez ikaratu, baina hor Lurpeko bi daude.

JONE

Non?

ESTOLDARIA

(Bere kamararekin fokatuz, Luspeko bi ikusten dira.) Han. Lasai egon, ez gaituzte ikusi. Zatoz nirekin.

Estoldariak estoldako tapa zabaldu eta Jone sartzen du barrura.

ERLOJUGILEA

Juanjo... Zertan habil? Etzak neskatoa hor barruan sartu!

ESTOLDARIA

Ez duk ezer gertatuko. Ez gaitiztek sartzen ikusi.

JANIS

Oso ilun dago!

ERLOJUGILEA

Juanjo... Ez zaidak gustatzen neska nahastea!!

JUANJO

Lasai, Tomás... Joaten direnean irtengo gaituk berriz.

Estalkian kolpe batzu entzuten dira.

ESTOLDARIA

Tssst!

LURPEKO 1 (OFF)

Aizue!! Ba al dago inor hor? *(Bere kideari)* Hemen sartu direla uste dut.

Jone bildurtzen da. Estoldaria zaratarik ez egiteko eskatzen dio.

LURPEKO 2 (OFF)

Aizue! Debekatuta dago tuneletan sartzea.

LURPEKO 1 (OFF)

Begira! Zulo bat egiten ari ziren. Museokoak dira!

LURPEKO 1 (OFF)

Lagundu tapa altzitzen.

ESTOLDARIA

Mekagoen Santimamiñeko kobazuloetan! Korri!! Korri!!

Estoldaria eta Jone korrika hasten dira. Juanjok kaskoa galtzen du eta kamara lurrera jausten da. Irudia fijo geratzen da.

ERLOJUGILEA

A ze deskalabrua! ¡¡Juanjo!! Ea kamara fijoan zerbait ikusten dudan...

Orain tunelaren erdian dagoen kamara fijo bat ikusten dugu. Ez dago inor. Gutxira, argi bat ikusten da.

ERLOJUGILEA

Kaka zaharra, han daude ...

Pantailan Estoldaria eta Jone direla ikusten dugu. Korrika pasatzen dira.

ERLOJUGILEA

Ah, ez, gutarrak ziren... Eskerrak. (...) Itxoin... ¿Ez al dituzue oin hotsak entzuten?

Pantalla argi bat ikusten da urrunean. Gutxira, Lurpekoen siluetak somatzen ditugu .

ERLOJUGILEA

Aurkitu dituzte!!

Estoldaria agertzen da estalkitik.

ESTOLDARIA

Azkeneko bidegurutzean despistatu dizkiat!! Kostatuko zaiek heltzea.

ERLOJUGILEA

Eta Jone?

ESTOLDARIA

Zer?

ERLOJUGILEA

Juanjo, non zagok Jone?

ESTOLDARIA

Nor duk Jone?

ERLOJUGILEA

Juanjo, neska tuneletan sartu eta han utzi duk abandonaturik!!

ESTOLDARIA

Ez diat ezer gogoratzen! Sentitzen diat. Banoak bere bila!!

ERLOJUGILEA

Ez!! Lurpekoak hor barruan zaudek.

ESTOLDARIA

Baina ezin diagu neska han utzi.

ERLOJUGILEA

Egia. Goazemak bere bila. Eta gertatu beharrekoa gerta dadila.

Abots bat entzuten da.

JONE (OFF)

Kaixo!! Han zaudete?

ERLOJUGILEA

Jone duk!

*Pantailan Jone ikusten dugu, lurrera jausitako kamara eskuekin hartu du.
Bere aurpegiaren planoak ikusten dugu.*

JONE

Izkutatu egin naiz, eta LURPEKOak pasatu direnean, atzera bueltatu naiz. Baina... flauta galdu egin zait!

ERLOJUGILEA

Jone... Orain hortik atera behar duzu.

JONE

Baina nire flauta...

ERLOJUGILEA

Zure flauta aurkituko dugu. Baina orain irten hortik. Juanjo, lagunduiok.

ESTOLDARIA

Jone. Irteeratik gertu zaude. Eman buelta.

Joneak buelta ematen du.

ESTOLDARIA

Ikusten burdinezko eskilara hori? Igo hortik.

ERLOJUGILEA

Nik bitartean museoa izkutatuko diat.

Jone kanpora irteten den bitartean, ERLOJUGILEA museoa izkutatzen hasten da.

ERLOJUGILEA

Mapa kanpora!!

Mapa izkutatzen da.

ERLOJUGILEA

Makinaria kanpora!

Gainontzeko zatiak desagertzen dira.

ERLOJUGILEA

Eskilara kanpora!

Eskilara desagertzen da.

Bien bitartean, Jone kanpora irten da.

JONE

Kanpoan nago. Mesedez, bilatu nire flauta!

ERLOJUGILEA

Gure hitza duzu. Eta orain utzi behar zaitugu. Agur, Jone.

Pantaila desagertzen da. ERLOJUGILEAk klabe bat tekleatzen du.

ESTOLDARIA

Zergatik ez duk burdinezko horma altzatzen?

ERLOJUGILEA

Izkutuko klabea ahaztu zaidalako. Gogoratzen saiatzen ari nauk. 3546... ez. 8965... Ez!

Estoldaria lau objektu ateratzen ditu.

ESTOLDARIA

Hara Tomas: Tripode, arimiarma, txanpona eta arpoia.

ERLOJUGILEA

Ixilduko al haiz? Kontzentrazioa behar diat!!

ESTOLDARIA

Izkutuko klabea duk. Tripodeak hiru dizkik. Armiarmak, zortzi. Txanponak bi alde. Arpoiak bat-aren itxura zaukak. Tripodea, armiarma, txanpona, arpoia: 3821!

ERLOJUGILEA

Bai zera...!

Zenbakia tekleatzen eta horma gora igotzen hasten da.

ERLOJUGILEA

Big Ben erlojuaren orratzengatik, izkutuko klabea zuan!!

ESTOLDARIA

Eta gero ni nauk amnesikoa.

ERLOJUGILEA

Juanjo, esan al diat inoiz mundiala haizela?

ESTOLDARIA

Esan egin badidak, ahaztu egin zaidak. Itxoin, zer zeukeat nik hemen? (*Poltsikotik apurtutako flauta ateratzen du*) Jonen flauta! Ez diat gogoratzen noiz hartu dudan!

ERLOJUGILEA

Joneri eramango zioagu, poztuko duk. Baina orain hemendik irten behar diagu. Eta gogoratu: hau zuen museoa da. Zer lurperatu nahi duzuen erabakitzean, idatzi guri kontatzeko. Gure sekretua izango da. Eta orain... irten!!

Ikusleak patiora doaz Arielak Denboraren Museoaren txartelak banatzen dizkieten bitartean.

Kanpoan daudela, LURPEKOak estoldako estalkitik irteten dira.

LURPEKO 1

Zer da hau?

LURPEKO 2

Antzoki bat ematen du.

LURPEKO 1

Begiratu ondo. Mapa bat egon behar da hemendik.

LURPEKO 2

Ez dut maparik ikusten.

LURPEKO 1

Berriz okertu gara.

LURPEKO 2

Goazen.

LURPEKOak patioa zeharkatu eta badoaz.

FIN

PATXO TELLERIA